

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

Udako Euskal Ikastaroak, guk antolatu eta egin ditugun eran, Israeleko eskoletan erabiltzen duten hezkuntzarekin badute zerikusirik.

Lehen Ikastaroa Israeleko eskoletako eta "kibutzin" delakoetako bizitzaren esperientziak kontutan harturik, euskara bizia, begi-belarrietatik ikasia irakasteko bidearen bila abiatu zen.

Asmo hau aspaldikoa zen talde batzuetan, baina azkenez Madriden eta Salamancan ikasten ari ziren euskal ikasle batzuek bereganatu zuten.

Harreman ugari izan zituzten bai batzuekin eta bai besteekin. Bizkaia aldean begi onez ikusten zen asmo honen helburua, baina azkenik, eta toki egoki baten faltagatik, ezin zen egin Bizkaian EUSKERAZALEAK elkar-tearen babespean.

Denboraren premiak eraginik, Aita Pasiotarrek Gabirian (Gipuzkoan) zuten ikastetxe zaharra jo zuten egokituz. Probintziz aldatzean, beste elkarte batzuegana jo behar izan zuten, eta Euskaltzaindiarengana joan. Euskaltzaindiak bere babespen eta laguntza guztia eskaini zien.

Baimenak lortzeko eragozpen ugari izan zituzten eta baita ere pentsatu ezingo zutela ikastaroa aurrera atera. Baina Euskaltzaindiko Idazkari zen Juan San Martin jaunaren laguntza trebeari eta antolatzaileek Ikastaroa egiteko zedukaten gogo biziari esker, ikasle haien lehen asmo hura egia bihurtu zen.

1968 urteko UDA

Lehen ikastaro hau Uztailaren 15ean hasi zen. Eskolak, berriz, 17an. Ikastaroa Agorrilaren 15erarte egiteko izan ziren, baina hil horren 3an Gipuzkoako Gobernadoreak telegrama bat bidali zien ikastaroa amai arazi. Garai hartan Gipuzkoako probintzia "Ley de excepción" delakoaren agindupean baitzegoen.

Ikastaro honek, 1968.eko Udan gaude, 45 ikasle izan zituen. Hauen artean maila ezberdinak zeudenez, hiru taldetan banatu ziren. Euskara ondoen menderatzen zutenekin MONITORES talde bat sortu zen. Ardura-dun hauek, heuren euskara landu eta behe mailakoei laguntzen aritu ziren.

Igandez eta jaiez ez zuten eskolarik. Etxeko lanak eginez gero, inguruetako herrietara irtetzen ziren bertakoekin hitz egiteko asmoz.

Eskoletan P. Altunaren EUSKERA HIRE LAGUNA liburua erabili zuten, aditza, atziñkiak eta irakurgaiak beste liburu batzuetatik harturik.

Egungo euskal abestiak ere lagungarri izan ziren ikastaro hartan, batez ere ahozkatzen irakasteko eta belarria hizkuntza berriaren joskera egokitzeke.

Irakasleak

Ikastaro honetan: Xabier Mendiguren, Jose Lizarralde eta Jon Iraola, izan ziren irakasle.

IKASTAROAREN ONDORIOAK

Ikastaroak bere akatsak izan zituen, baina hala eta guztiz ere, ikasle haien asmoak bete eta xitu egin zituen. Ikastaro honetako esperientziak baliaturik urrungo urtekoa hobeto eratzeko aukera izan zuten.

Begi bistan dago, halako Ikastaroak direla egun euskara bizia ikasteko biderik labur eta onena. Ikastaro hauetako ikasle batzuk euskara nola ikasi

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK;

zuten ikusiz, ez dago honetaz zalantzarik.

Ikastaro hauk egoki egokiak dira aldeaz aurretik -ikastaro aurretik-euskara dakitenentzat, batez ere, euskara nahiko dakitenentzat, baina hitz egiteko erraztasunik ez dutenentzat. Bestalde, behar beharrezko ikusten da era honetako ikastaroetara ez dutela etorri behar ezer ez dakitenek, hau da, euskara hitz egiteko gai ez direnak, ikastaroan erdaraz egitea debekaturik baitago.

Djru arloan, nahiko gaizki atera ziren. Eskerrak Iruineko Foru Diputazioaren "Institución Principe de Viana-ren 10.000 pezetatako laguntzari, ordaindu zituzten egindako gastuak. Ikasle bakoitzak 1.500 pezeta ordaindu zuen.

1969 UDA

Aurreko urteko Ikastaroaren ondorio onuragarriak ikusi ondoren, Madrideko ikasleak berriro ere, hasi ziren bigarren Ikastaroa eratzen.

Iragarki bat atera zuten ikastaroaren zenbait berri eta aldakuntza agertuz. Iragarki honetan, argi eta garbi ikusten zen aurreko urteko Ikastaroaren eraginagatik edo, hiru maila ezberdin eskaini zirela, ezer ezer ez dakitenei atea itxirik:

- 1)-zerbait dakitenak
- 2)-nahiko gramatika dakitenak
- 3)-nahiko ongi mintzatzen direnak

Ikastaro honetan bi euskalki erakutsi ziren:

- Bizkaiera
- Giputza

Ikastaro Uztailaren 14ean hasi zen, Agorrillaren 23an amaitzeko.

Aukeraturiko tokiak: Urretxu, Markina eta Leitze, baina bi azken hauetan ezin izan egin, agintariek ez baitzuten baimenik eman. Horregatik Markinan egiteko zen Ikastaroa Eubako Aita Pasiotarren ikastetxean egin zen eta Nafarroan eguneriko eskolak eratu, nolabait ikastaroaren hutsunea betetzeko. Eskola hauk Iruineko REAL SOCIEDAD DE AMIGOS DEL PAIS elkarteak utzitako ikasgeletan eman ziren.

URRETXU

Ikastaro honetan 60 bat ikasle izan ziren; irakasleak berriz, bost: bi andereño eta hiru irakasle. Irakasle hauen izenak, tamalez ezin izan ditugu argitu eta badirudi galdu bide direla.

Ikastaroko ikasleen artean, Unibertsitateko ikasle asko nabarmentzen zen. Euskara aldetik, iragarkietan eskatzen ziren mailak bete erazi ziren. Ifarraldeko bostpasei ikasle izan ziren Ikastaro honetan.

Erabilitako metodoa, P. Altunaren EUSKERA HIRE LAGUNA, I eta II, irakurgai, idazlan eta besteekin osaturik.

URRETXUKO IKASTAROAREN ONDORIOAK

Ikastaro honetatik bi ondorio atera ziren:

- 1.-Ikastaro mota hauk direla euskara bizia ikasteko erarik onena.
- 2.-Ikastaro mota hauk eratzeko diru asko behar dela eta edo laguntza batzuk lortzen dira edo, bestela, ikasleek asko ordaindu beharko dutela.

Ikastaroak ahalik eta jende gehienari hedatzeko asmotan, eta txarto eraturik edo eratu gabe gelditzen den hainbat eginbehar zuzentzeko, eratzaille trebe eta langileen beharrez dago eta baita ere, irakasle gertu eta prestuena. Baina guzti hau egiteko, diru asko behar, eta aurrera jarraitzeko akats hau konpondu behar...

EUBA

Ikastaroa hau Markinan egitekoa izan zen baina gorago aipaturiko arozoetatik, ikasle guztiak Eubako Aita Pasiotarren ikastetxera abiatu ziren Uztailaren 13an.

Uztailaren 14ean hasi zen ikastaroa ondoko egitarau honekin:

7,30	jeiki	15,30	eskolak prestatu
8,00	eskolak prestatu	16,40	eskola
9,00	gozaria	18,00	atsedenaldia
10,00	eskola	19,00	eskola
11,45	eskola	20,30	afaria
13,00	bazkaria	22,00	kultur gaiak

Bi talde egin ziren; bata Patxi Elguezabal irakasle zuela eta bestea Kepa Mallea zuelarik.

Erabilitako metodoa P. Altunaren EUSKERA HIRE LAGUNA liburua.

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

EUBAKO IKASTAROAREN ONDORIOAK

Ikasleen artean maila ezberdinak zeudelarik bi talde sortu ziren. Bi talde hauek ia ia bizitza ezberdina egin zuten. Hala ere, gehien zekitenek beste taldekoei laguntzen eginahalak egin zituzten.

Hitzaldiren batzuk ere pentsaturik zeuden baina gorago aipaturiko arrazoina zela eta ez zen aurrera eraman idea hau.

Egituraua nahiko betea eta lotua zenez gero, ikastaroaren azkenaldira jendea nekatu nekaturik agertzen zen. Zer esanik ez irakasleak, heuren gain baitzegoen eskolak eta arazo guztiak konpontzeko ardura.

Beste ikastaroan bezalatsu, hemen ere ekonomi arazoak larri eta hestu jarri zituen irakasle eta ikasleak.

1970ko UDA

Aurreko bi Udako Euskal Ikastaroak izan zuten erantzunaz eta ikasle jendea euskalduntzeko garrantzi handiaz oharturik, eratzailiek hirugarrenez ekin zioten eratzeari.

Horretarako 1970ko Ekainaren 13an Urretxun elkartu ondoren, ikastaro bat ondo ateratzeko behar beharrezko diren pedagogia, ekonomia, eta erakundea aztertu zituzten, eta pedagogia hobetu zen neurrian, ekonomi arazoa ere hobetu beharra zegoela ikusi zuten. Hau honela izanik, erakunde ofizialei eta partikularrei diru laguntza eskatzea erabaki ondoren, ikasle bakoitzak eman behar zuena 5.000 pezetatan jarri zuten.

Aurrera joan baino lehen, aipa dezagun diru laguntza eskari hau CAJA DE AHORROS Provincial de Guipúzkoa, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián eta Caja Laboral Popular-ei bidali zitzaizela, baina CAJA LABORAL POPULAR-ek bakarrik erantzun zuen, 25.000 pezetatako laguntza bidaliz.

Uda honetan hiru Ikastaro egin ziren:

- 1.-Markina.....47 ikasle (4 talde) Bizkaieraz
- 2.-Oinati..... 23 ikasle (2 talde) Giputzez
- 3.-Leitze..... 30 ikasle

Hirugarren Ikastaroa-Leitzen egiteko zena - hainbat gora behera gertatu ondoren Lamiarrita-ra jo beharra izan zuten, eta azkenez han bertan egin zen.

Ikastaro hauetako irakasleak: Kepa Mallea, Patxi Elguezabal, David Zabala, Juanjo Zearreta, Belen Oleagordia, Juanjo Uranga.

Ikastaro hauetan, euskaltzain batzuen bisita izan genuen eta euskararen inguruko gaiez mintzatu zitzaizkigun.

1971ko UDA

Uda honetako Ikastaroak egiteko, Zizur Gutia-ko VERBO DIVINO ikastetxea eta Leitze-ko ESCUELA AGRARIA delakoak aukeratu zituzten eratzailleak.

Uda honetan hasten da Bizkaiko Alfabetatze Batzordea Ikastaro hauen eratze ardura bere gain hartzen.

Aukeratu esan dugu, baina hau ez da egia osoa. Aukeratu beharra izan genuen zeren eta 50 ikastetxe baino gehiagotara joan baiginen ate joka, batez ere, fraile eta monja ikastetxeetara baina alferrik. Azkenez, VERBO DIVINOkoei eskerrak Ikastaro hau aurrera atera genuen. Bihoazkie lerro hauetan eratzaille, ikasle eta irakasleen partez, gure esker-onik zintzoenak eman ziguten laguntzagatik.

Aipatu dugun VERBO DIVINO ikastetxean 65 ikasle hartu zuten parte, 5 taldetan banaturik. Egunero 8 bat ordu eskola izan zuten, Patxi Elgeza-bal, Jose Bernardo Jauregi, Jose Ramon Tapia, Juan Ignacio Intxaurreaga, Sabino Egileor eta Juanjo Zearreta irakasle zirelarik.

Ikastaro honetan bi euskaltzainen bisita izan genuen: Aingeru Irigaray jaun euskaltzaina eta Alfabetatze Batzordeko Burua dena, eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko Idazkariordea dena.

Ikastaro honetara etortzeko ikasle bakoitzak 5.000 pezeta ordaindu behar izan zuen. Diru hau asko izanik Ikastaroa amaitzean oso pozik zeunden ikasleak bai ikasi zutenagatik, bai eta oso toki on, garbi eta paketsua zelako VERBO DIVINO ikastetxe berria.

Bigarren Ikastaroa egiteko, gorago esan bezala, Leitze-ko ESCUELA AGRARIA delakoa aukeratu genuen eratzailleak. Horretarako Iruinako Foru Diputazioko "Principe de Viana"ko Diputatu arduradunari eskari bat egin zitzaion Ikastaroan jarraikiko genuen egitaraua bidaliz. Diputaziotik baitza jaso ondoren, ikasleak Leitzaera abiatu ziren, baina azken orduko ezbehar batzuen erruz, ezin zen egin ikastaroa Leitzen.

Zer egin?. Harantz eta honantz ibili ondoren, Donostiako SEMINARIO an lortu genuen tokia. Beraz, Agorrilako Ikastaro hau Donostian egin

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

genuen, Agorrilaren 2an hasi eta 30ean bukatuz.

Ikastaro honetan 57 ikasle izan ziren, 6 taldetan banaturik. Irakasleak: Patxi Elgezabal, Jose Ramon Tapia, Rikardo Badiola, Juan Luis Goikoe-txea, Aniceto Ajuriagogeaskoa, Juanjo Zearreta, Sabino Egileor, Lola In-gelmo eta beste bi andereño: Mari Isabel eta M^a Carmen.

Aipatu beharrezkoa da, bai eta ere, uda honetan 27 neska MAGISTE-RIO tituludunak izan zirela euskara ikasten edo hobetzen, honez gero ikastoletan zabaldurik irakasten arituko diratekenak.

1972ko UDA

Aurreko urteotan bezala, Udako Euskal Ikastaroak eratu genituen. Baina uda honetan, aurreko ikastaroetako ikasleen ideiak eta eskariak kon-tutan harturik, bi eratako Ikastaroak antola genituen:

- Barrukoa edo Internado
- Eskolak edo Externado.

Otsailan hasi ginen ikastaro hauk eratzen. Horretarako larunbatero elkartzen ginen Euskaltzaindian eta ere honetako Ikastaro bat ondo atera-tzeko behar diren alderdi guztiak banan banan aztertu ondoren egina-halak egin genituen ondo eratzen.

Tokiaren arazorik ez genedukan aurreko urtetik, Irailetik, hitza eman baikenuen VERBO DIVINO ikastetxeko nagusiari, uda honetan ere ikas-tetxe hortantxe emanen genuela ikastaroa.

Irakaskintza ere hobetu nahiean, lanean aritu ginen Otsailaren hasera-tik, eta lan asko zela ikusirik, irakasle taldeak Aste Santu osoa eman zuen elkarturik, ikastarorako testoak prestatzen.

Ikastaroen iragarkia atera genuenean, bi eratako Ikastaroak aurkezten genituen:

ESKOLAK edo Externado

A.-Uztaila 5etik.....Agorrila 5era.

Arratsaldez.....4etatik 7etara.

Ordaina.....2.500 pezeta.

B.-Agorrila 6tik.....31ra.

Arratsaldez.....7etatik 10etara

Ordaina.....1.500 pezeta.

Ikastaro hau emateko Begoñatik Aita Karmeldarrek utzitako tokiak erabili genituen.

INTERNADO

Internado hau Zizur Guttiago "VERBO DIVINO" ikastetxean egitea programatu zen. Uztailaren 5etik Agorrilaren 5era. lehendabizikoa. Eta Ikastaro hau osoa egin genuen.

Bigarrena, ordea, Nafarroako Gobernadoreak gutun bat bidali zien "VERBO DIVINO" ikastetzeko fraideei jendea edukitzeko ostatu baimenik ez zutela esanez. Aitzaki horrekin ezin izan genuen Agorrileko ikastaroa bertan egin.

Baina aipatu beharra da, egia baita, Euskaltzaindiak ahalengin guztiak egin zituen ikastaro hau aurrera ateratzeko. Horretarako Idazkari-ordeak Iruinako Foru Diputazioa jo zuen, eta bertako Deputatu zen eta den Irazoki jaunerekin mintzatu zen. Geroago Gobernadore ordezkoko zegoen jaunarekin ere mintzatu zen, baina ez zen aurrera atera gure lehen asmo hura.

Denbora aurrera zihoala eta Iruinekoa beltz ikusirik, beste tokiren baten bila aritu ginen. Azkenik, Bilboko COLEGIO SANTIAGO APOSTOL-eko zuzendariak eman zigun tokia eta hantxe bertan eratu Agorrilako gure Barruko Ikastaroa edo Internado, izango zena, argitarau honekin:

9 - 10	ekola	16 - 17	eskola
10,15 - 11,30	eskola	17,30 - 19	eskola
12 - 13	eskola		

Ikastaro hau gure iragarkietan aurkezten zen bezala, Agorrilaren 10ean hasi genuen hasera hitzaldia Jose Luis Lizundia euskaltzain laguntzaile eta Idazkariordea denak emanaz; eta amaiera hitzaldia Alfonso Irigoyen jaun euskaltzainak.

Bi ikastaro hauetan irakasle izan zirenak: Juan Luis Goikoetxea, Jesus Legarreta, Lola Ingelmo, Juanjo Zearreta, Rikardo Badiola, Sabino Egileor, Juan Ignacio Intxaurreaga, Gregorio Martikorena.

Uda honetako ikasleei buruz zenbait zehaztasun gehiago eman nahirik, hona hemen ondoko koadroak:

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

	UZTAILA		AGORRILA		ORO
	Iruinea	Bilbo	Bilbo	Bilbo	
Gizonezkoak	21	10	15	22	68
Emakumezkoak	28	11	35	24	98
OROTARA	49	21	50	46	166

Urteak	UZTAILA				AGORRILA				ORO
	Iruinea		Bilbo		Bilbo		Bilbo		
	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	
20	3	6	–	2	1	6	1	1	20
20 - 25	14	11	1	8	5	15	4	12	70
25 - 30	3	7	3	–	2	5	13	4	37
30 - 35	–	–	4	–	5	2	1	4	16
35 - 40	1	3	1	–	1	1	3	3	13
40 - 50	–	1	–	1	–	4	–	–	6
50	–	–	1	–	–	2	–	–	4
OROTA.	21	28	10	11	15	35	22	24	166

	UZTAILA				AGORRILA				ORO
	Iruinea		Bilbo		Bilbo		Bilbo		
	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emak.	
MINTZATU	3	8	3	2	4	8	7	4	39
<i>Ulertu eta Zailtasunez Mintzatu</i>	10	10	4	1	6	12	9	11	63
<i>Zerbait ulertu eta ia ezer ez mintzatu</i>	9	9	3	8	6	14	6	9	64
OROTARA	22	27	10	11	16	34	22	24	166

1973ko UDA

Uda honetan, aurreko urteko gora beherak oraindik ahantzi gabe genituelarik eta behingoz udako euskal Ikastaroak zihurtasun batera eramanean nahian, Bizkaiko Alfabetatze Batzordekoek eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegiakoeke eratu genuen Ikastaroa Deustuko Unibertsitateko ikasgeletan.

Bi eratako Ikastaroak izan ziren:

Uztaila

1 etik.....30era
 Goizez.....etatik..... 13etara
 Arratsaldez...4etatik.....7etara
 Ordaina:.....2.750 pezeta

Agorrila

7tik.....31ra
 Arratsaldez:..4 atik..... 8etara
 Ordaina:.....2.500 pezeta.

Ikastaro hauetako ikasleak 132 izan ziren 10 taldetan banaturik. Irakasleak: Rikardo Badiola, Sabino Egileor, Juan Luis Goikoetxea, Juan Ignacio Intxaurreaga, Jon Aurre, Xabier Oleaga, Juanjo Zearreta eta Joseba Tobar.

Ikasleei buruz zehaztasun gehiago emateko, hona hemen ondoko koadroak:

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

	UZTAILA	AGORRILA	ORO
Gizonezkoak	32	21	53
Emakumezkoak	37	42	79
OROTARA	69	63	132

Urteak	UZTAILA		AGORRILA		ORO
	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	
20	7	11	6	13	37
20 - 25	13	12	4	19	48
25 - 30	6	5	8	5	24
30 - 35	7	2	1	1	11
35 - 40	—	2	2	1	5
40 - 50	1	1	1	1	4
50	—	2	—	1	3
OROTARA	34	35	22	41	132

	UZTAILA		AGORRILA		ORO
	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	
Hasi	4	12	2	12	30
Zerbait					
Ulertu	16	16	11	15	58
Ulertu eta					
zailtazunez	6	7	1	9	23
mintzatu					
Polliki					
mintzatu	6	2	7	6	21
OROTARA	32	37	21	42	132

1974ko UDA

Uda honetan ihaz bezala, Bizkaiko Alfabetatze Batzordekoek eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegikoek antolaturik eman dira udako euskal ikastaroak.

Aurton ere bi ikastaro izan ditugu:

Uztaila

1tik.....30era
 Arratsaldez... 4tik.....8,30era
 Ordaina..... 3.500 pezeta

Agorrilla

5etik..... 31ra
 Arratsaldez... 4etatik..... 8,30ra
 Ordaina..... 3.500 pezeta

Aurtengo ikasleak 159 izan dira. Zehaztasun gehiago eman nahirik, hona hemen beste zenbait dato.

Gizonezkoak.....	86
Emakumezkoak.....	73
OROTARA.....	159

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

Urteak	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	OROTARA
20	20	19	39
20-25	30	29	59
25-30	21	19	40
30-35	4	3	7
35-40	5	1	6
40-50	6	2	8
50-—	—	—	—
OROTARA	86	73	159

Eta azkenik, ikasleak nola banatu ziren taldetan.

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	OROTARA
IV Maila	11	9	20
III Maila	13	15	28
II Maila	30	24	55
I Maila	32	25	57
OROTARA	86	73	159

Ohar ttiki bat koadro honi. Lehen maila esatean ezerezetik hasten direnak esan nahi dugu. Beste mailak ikastaroko jakinduriaren arauera egin behar banaketa izaten dira.

J. J. Zearreta